



*Prentsa oharra*

*Elkartasunaren aldeko apustua*

## **MILA DENDA INGURUK EGINGO DUTE BAT AURTEN OHIKO ELIKAGAIEN BILKETA HANDIAREKIN**

- Produktuak bonu bidez biltzea eta ohiko eran fisikoki ematea izango dira Elikagaien Bilketa Handiaren bi modalitateak ostiral eta larunbat honetan
- EROSKI 4.224 tona janari baino gehiago eman ditu behar gehien duten kolektiboentzat 2019ko lehen seihilekoan
- Hogei urte baino gehiago dira EROSKI eta FESBAL Elikagaien Bankua elkarrekin lanean ari direla

Elorrio, 2019ko azaroaren 20a.- [EROSKI Taldeak](#), urtero bezala, bat egingo du asteburu honetan FESBAL Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak antolatzen duen Bilketa Handiarekin. Mila saltoki inguruk —EROSKI, [Vegalsa](#) eta [Capraboren](#) supermerkatuak, hipermerkatuak eta frankiziak kontuan hartuta— aukera emango diete bezeroei dohaintzak egiteko bi modalitatetan, ohi bezala fisikoki emanda eta elikagaien bonu bidez emanda.

Bonuei dagokienez, 5 euroekin edo bezeroari iruditzen zaionarekin laguntzen da ordainlekutik pasatzeko orduan. Era praktikoa da, zeren eta kanpaina amaitzean Elikagaien Bankuen esku gelditzen dira bonuak, eta gehien behar diren produktuak erosten dituzte.

Aurreko kanpainetan bezala, EROSKI ekarpen gehigarri bat egingo dio kanpainen bildutako guztizkoari. "*EROSKI n ohikoa denez, konpromiso honetan parte hartu nahi dugu, eta kontsumitzaileek emandako kiloei guztizkoaren zati bat batuko diogu gehigarri gisa*", esan du Martinez Berriochoak.

### **4.224 tona janari beharrean diren familientzat**

EROSKI 4.224 tona janari baino gehiago eman ditu behar gehien duten kolektiboentzat 2019ko lehen seihilekoan. Kopuru horrekin, 2.200 pertsonak jan dezakete urte osoan. Dohaintza horretatik, EROSKI 3.782 tona baino gehiago eman ditu 'Ez alferrik galdu' programarekin. Programa horren bitartez, EROSKI

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



bermatzen du bere dendetan ez dutela botatzen jateko ona dagoen elikagairik eta dendatik hurbileneko gizarte erakundeei ematen zaiela.

### **Hogei urtean baino gehiagoan Elikagaien Bankuarekin lanean**

1996an hasi zen EROSKI Elikagaien Bankuarekin lankidetzan, Bizkaiko Elikagaien Bankuak eta kontsumitzaileek berek proposatuta, behartsuen eta bazterkeria soziala jasateko arriskuan direnen kolektiboari elkartasuna erakustea galdegiten zuten eta.

Gero, EROSKIk martxan jarri zuen kontsumitze data hurbil zuten baina oraindik ziurtasun osoz jateko onak ziren elikagai ontziratuen donazioaren programa. EROSKIren programa honek eta Elikagaien Bankuak jarraitzen dute 'Ez alferrik galdu' konpromisoarekin, jateko on den elikagairik ez botatzeko bere hipermerkatu eta supermerkatu sare guztian.

Krisi ekonomikoaren lehen ondorioak hastearekin, EROSKIk eta FESBALek janari freskoetara zabaldu zuten programa hori; horretarako, beharrezkoa izan zen dohaintzaren logistika berriz definitzea, hotz kateari eusteko eta ziurtatzeko elikagaiak segurtasun osoz ailegatzeko direla hartzailleengana.

Kooperatibak egin duen lana aitortu izan du Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak, eta Urrezko Galburuaren saria eman izan dio; hain zuzen, hori da Federazioaren saririk handiena, sobera gelditu diren elikagaiak banatzen nabarmendu diren erakundeei ematen diena.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)